

# AHO-BIZI: LAGUNGARRIAK IZANGO ZAIZKIZUN AHOLKUAK



**%40 euskaraz hitz egiteko gai gara Intxaurrondon.**  
**%70 inguruk ulertzen ditugu oinarrizko elkarrizketak.**  
**10.000 aukera baino gehiago ditugu baliatzeko.**



**1. AKTIBATU.** Zuk euskaraz egiten baduzu, ingurukoek ere egingo dute.

**2. LEHENENGO HITZA EUSKARAZ** eginez gero, euskaraz aritu nahi duzula adieraziko duzu eta besteek euskaraz ote dakiten jakiteko modurik hoberena da. Sorpresak hartuko dituzu.

**3. BIGARREN HITZA ERE EUSKARAZ.** Agian ez du ondo ulertu eta horregatik erantzun digu, Eh? Euskaraz ez badaki, berak esango dizu. Gainera, ez hitz egiteak ez du esan nahi ulertzen ez duenik. Zerbait ulertzen badu, euskaraz egin dezakegu, nahiz eta berak ez egin. Galdetu. Bilatu konplize bat. Elkarrizketa elebidunak susta ditzakezu. Poliki hitz egin, hiztegi erraza erabili, keinu batzuk baliatu... Agurrak, aginduak, errutinak, esaldi motzak... erabili lasai! Gehienek gustura hartzen dituzte.

**4. OHITURAK ALDA DAITEZKE.** Etorkizuna ez dago aurrez idatzita. Proba egin. Errazenetik hasi. Helburu lorgarriak. Epe laburrak. Astebete arituko zara Aho-bizi. Pentsatu norekin aritzen zaren gaztelaniaz euskaraz aritzeko aukera izanda ere. Errazena iruditzen zaizuna aukeratu lehenengo. Lasai eta gustura zaudetenean proposatu. Azaldu zergatik aritu nahi duzun euskaraz berarekin. Iritz subjektibo positiboak erabili: Baietz 20 egun euskaraz erronkan parte hartzen ari zarelako eta estimu handian dituzun pertsonekin euskaraz aritzea garrantzitsua delako zuretzat... Iritzia eskatu eta adi entzun. Ezezkoa erantzuten badu, galdetu zein baldintzatan egon daitekeen onartzeko prest eta irtenbideak proposatu. Adosten saiatu. Berak nahi badu, gaztelaniaz egin dezake nekatzen denean. Egoera laburrenetatik hasi. Eguneroko elkarrizketen %80 motzak edo oso motzak dira. Lortutakoa aitortu eta eskertu ahalegina.

**5. ONARTU, BABESTU** eta **LAGUNDU** euskara gutxiago dakitenak. Gaitasuna eta motibazioaz gai, aukerak behar ditugu euskaraz aritzeko, bai guk, baita guk baino gutxiago dakitenek ere. Eroso zentitu eta erosoago sentiarazi.

**6. AURREIRITZIAK INDARGABETU.** Pertsona baten itxurak, jatorriak, adinak, generoak... ez du euskaraz dakien edo ez adierazten. Euskaraz egiten diozunean berdina zaretela adierazten diozu. Bertakotzat duzula, zu bezalakotzat.

**7. IRRIBARREA LAGUN.** Egoera guztiak irribarretsu, umorez eta modu eraikitzailean hartzen saiatu. Ate asko irekitzen ditu irribarreak eta erosoago egongo zara. Euskaraz aritzeko eskubide osoa duzu. Ez itzuli erasorik. Zure jokabide justifikatzen duzunean, zalantzan jartzea legitimatzen duzu. Enpatikoa izan, bestearen egoera ulertzen saiatu eta lagundu, baina euskaraz aritzeko erabakia zurea da beti. Euskaraz egiten duzunean, errespetuz ari zara, hizkuntza berdintasunaren alde. Maite duzuna doan eskaintzen diozu entzun nahi duenari.